Zarauzko Udala

ZERBITZUETAKO KONTRATUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ADJUDIKATZEKO KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA	**PLIEGOS DE CLAUSULAS TECNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE SERVICIOS, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO**
ZARAUZKO UDALEKO KIROL JARDUEREKIN LOTUTAKO ZERBITZUAK EMATEA	**PRESTACIÓN DE SERVICIOS VINCULADOS A LAS ACTIVIDADES DEPORTIVAS DEL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ**
INDIZEA	**INDICE**
1. Kontratuaren xedea	1. Objeto del contrato
2. Ekite eremua	2. Ámbito de actuación
3. Erabilera egutegia 3.1 Urteko orduen zenbaketa	3. Calendario de uso 3.1. Cómputo de horas anuales
4. Kontratuaren plan orokorra 4.1 Zerbitzuen kudeaketa 4.2 Pertsonen kudeaketa 4.3 Barne kudeaketa	4. Plan general del contrato 4.1. Gestión de servicios 4.2. Gestión de personas 4.3. Gestión interna
ERANSKINAK	ANEXOS
1.ERANSKINA Aritzbatalde kiroldegiaren lurrazalera banaketa.	ANEXO 1. Distribución de superficies del polideportivo Aritzbatalde.
2.ERANSKINA Aritzbatalde 2019 egutegia.	ANEXO 2. Calendario Aritzbatalde 2019.
3.ERANSKINA URTEKO Jardueren eskaintza 2019 – 2020 eta 2020-2021 ikasturteak.	ANEXO 3. Oferta de actividades CURSO 2019 – 2020 y CURSO 2020 – 2021.
4.ERANSKINA UDA 2019 eta 2021 eskaintzak.	ANEXO 4. Oferta VERANO 2019 y 2021.
5.ERANSKINA Aritzbatalde 2021 egutegia.	ANEXO 5. Calendario de Aritzbatalde 2021.
6.ERANSKINA COVID Kontingentzia plana.	ANEXO 6. Plan de contingencia COVID.
7.ERANSKINA (1) zerbitzuko pertsonalaren funtzioak eta zereginak.	ANEXO 7. Funciones y tareas del personal vinculado al servicio (1).
8.ERANSKINA (2) zerbitzuko pertsonalaren funtzioak eta zereginak.	ANEXO 8. Funciones y tareas del personal vinculado al servicio (2).
9.ERANSKINA (3) zerbitzuko pertsonalaren funtzioak eta zereginak.	ANEXO 9. Funciones y tareas del personal vinculado al servicio (3).
10.ERANSKINA (4)zerbitzuko pertsonalaren funtzioak eta zereginak.	ANEXO 10. Funciones y tareas del personal vinculado al servicio (4)
11.ERANSKINA Talde tekniko kudeatzailearen funtzioak eta zereginak.	ANEXO 11. Funciones y tareas del equipo técnico gestor.

1. KONTRATUAREN XEDEA	**1. OBJETO DEL CONTRATO**
Zarauzko Udaleko kirol politika herritar guztien bizi kalitatea osasuntsua izateko zuzenduta dago, horretarako herritar guztiek eta bakoitzak duen jarduera fisikoa egiteko beharrei erantzunez.	La política deportiva del Ayuntamiento de Zarautz está enfocada a conseguir una calidad de vida saludable para toda su población cubriendo las necesidades de actividad física que todos y cada uno de sus habitantes tiene.
Politika horri jarraituz, kontratu honen helburua da Zarauzko udal kirol instalazioetan hainbat zerbitzu ematea. Kontratuaren helburu diren zerbitzuek bete beharko dituzten gutxieneko baldintzak plegu honetan zehaztutakoak izango dira.	Teniendo en cuenta dicha política, el presente contrato tendrá por objeto la prestación de diversos servicios en las instalaciones deportivas municipales de Zarautz. Las condiciones mínimas a las que deberán ajustarse dichos servicios objeto del contrato que nos ocupa, serán las que se definen en el presente pliego.
2. EKITE EREMUA	**2. ÁMBITO DE ACTUACIÓN**
Lizitazioaren xede den zerbitzua emango den tokia Aritzbatalde udal kiroldegia da, araba kalea 20; 20800 Zarautz – Gipuzkoa.	El emplazamiento donde se requiere la prestación de los servicios objeto de licitación es el Polideportivo municipal Aritzbatalde, ubicado en araba kalea 20; 20800 Zarautz – Guipuzcoa.
Aritzbalde kiroldegiko solairuen eta azaleraren banaketa aurkezten da, 1.go Eranskinean, aukeran izanik, enpresa lizitatzaileek nahi izanez gero, instalazioak bisitatzeko eskaintzak prestatzeko aldian eta aurrez abisatuta hitzordu bidez.	Se adjuntan como Anexo 1 la distribución por plantas y superficies del polideportivo Aritzbatalde, siendo posible, si así lo consideran las empresas licitadoras la visita presencial a las instalaciones en el periodo de la preparación de ofertas, bajo previo aviso y cita.
Zarauzko Udalak zerbitzu hauek beste edozein udal instalazioetan emateko ere eskatu lezake.	El Ayuntamiento de Zarautz podrá solicitar la prestación de los servicios anteriormente mencionados, en cualesquiera de las otras instalaciones municipales.
3. ERABILERA EGUTEGIA	**3. CALENDARIO DE USO**
COVID 19ak eragindako salbuespenezko egoeragatik 2020 urteko zentroko erabilera egutegia eta urteko orduen zenbaketa kontratu honen xede izango diren hurrengo urteetako erreferentzia gisa ezin da kontsideratu.	Debido a las circunstancias excepcionales ocasionadas por el COVID 19, el calendario de uso y cómputo de horas anuales del centro en el año 2020 no pueden ser consideradas de referencia para los próximos años objeto del contrato.
Arrazoi honengatik, orientagarri eta erreferentzia oinarri gisa, hurrengo eranskinak aurkezten dira:	Es por esta razón que se presenta, a título orientativo y como referencia base, los siguientes anexos:
2. Eranskina - Aritzbatalde erabilera egutegia 2019.	**Anexo 2** - Calendario de uso del Aritzbatalde 2019.
3. Eranskina - 2019 irailetik 2020 ekainera eta 2020 urritik 2021 ekainera arteko IKASTURTE jarduerak eta dedikazio denborak.	**Anexo 3** - Programa del CURSO de actividades y tiempos de dedicación, periodo septiembre 19 – junio 2020 y periodo octubre 2020 – junio 2021.
4. Eranskina 2019 eta 2021 UDA programak, uztaila - abuztuko jarduerak eta dedikazio denborak.	**Anexo 4** - Programa VERANO de actividades y tiempos de dedicación, periodo julio - agosto 2019 y 2021.

Zarauzko Udalak egutegi-ordutegi hau egokitu lezake egoera hauetan:

-Interes orokorrak hala eskatzen badu.
-Kirol programazioaren premien eta/edo aldaketen ondorioz.
-Ospakizunen edo aparteko ekintzen premien ondorioz aldez aurretik horren berri emanda.
-Zarauzko Udalaren irizpideen arabera behar bezala justifikatutako beste edozein arrazoi.

2020ko pandemiak eragindako egoerak ikasgai desberdinak ekarri ditu, azpimarragarriena zentroak eta enpresa esleipendunak erakutsi behar duten malgutasuna ustekabeko egoeretara egokitzeko kirolak Zarauzko udalerrian erreferente izaten jarraitzeko. Beraz, langile ororen orduen erabilerak zenbatzeko garaian malgutasun hori eskatu ahal izango da kontratuak irauten duen aldi osoan zehar; ordu horien erabilera, eginkizunak eta funtzioak zentroak eskatzen dituen horretara egokituta.

5. Eranskina - Aritzbatalde 2021 egutegia.

6.Eranskina-Covid19 pandemia egoeran Aritzbatalden ezarritako kudeaketa operatiboaren laburpena.

3.1 URTEKO ORDUEN ZENBAKETA

Kontratuaren izaeragatik urte jakin batean burutuko diren ordu kopuru zehatza, a priori, zenbatetsi ezin denez, denbora unitatetan ezartzen da prezioa, jarduera bakoitzaren gehieneko prezioa zerbitzuen kontratua esleitzeko Administrazio Klausulen Agirian zehazten dena izanez.

Orientagarri, zerbitzu orduen laburpen taula:

El departamento de deportes del Ayuntamiento de Zarautz podrá modificar este calendario-horario en los siguientes supuestos:

-Porque el interés general así lo demande.
-Por necesidades y/o variación de la programación deportiva.
-Por necesidades derivadas de celebraciones u otros actos de carácter extraordinario previamente informados.
-Por cualquier otra causa debidamente justificada, a criterio del Ayuntamiento de Zarautz.

La situación ocasionada por la pandemia en 2020 ha generado diversas lecciones aprendidas, entre la que se destaca, la flexibilidad que el centro y la empresa adjudicataria deben demostrar para ajustarse a las situaciones imprevisibles para que el deporte siga siendo un referente en la villa de Zarautz. Será exigible, por tanto, dicha flexibilidad en el uso del cómputo de horas total de los trabajadores en el transcurso de la totalidad del contrato, adecuando el uso y tareas y funciones de dichas horas a las necesidades requeridas en el centro.

Anexo 5 – Calendario de Aritzbatalde 2021.

Anexo 6 - Resumen de la gestión operativa en situación de pandemia por COVID19 implantada en Aritzbatalde.

3.1 COMPUTO HORAS ANUALES

Dada la naturaleza del contrato y al no poder estimarse, a priori, el número de horas exactas a realizar durante un año determinado, se estipula el precio en unidades de tiempo, siendo los precios máximos para cada actividad los dispuestos en el Pliego de Cláusulas Administrativas para la adjudicación del contrato de servicios.

A título meramente orientativo, se indica, a continuación, el resumen de las horas de servicio:

Zerbitzua *Servicio*	**Deskribapena** *Descripción*	**2019 urtea Ordu kopurua** *Año 2019 Horas anuales*	**2021 urtea Aurreikusitako ordu kopurua** *Año 2021 Horas anuales previstas*
1	Harrera, zainketa, sarrera kontrola eta lan administratiboak *Recepción, vigilancia, control de accesos y labores administrativas*	4.648,00 Ordu / *Horas*	5.352,60 Ordu / *Horas*
2	Salbamendua eta sorospena *Recepción, vigilancia, control de accesos y labores administrativas*	4.946,25 Ordu / *Horas*	4.734,60 Ordu / *Horas*
	Igerilekuen sekzioan sostengua *Apoyo sección piscinas*	-	3.252,00 Ordu / *Horas* *
3	Taldekako eta bakarkako jarduera gidatuak *Actividades dirigidas grupales e individuales*	10.325,00 Ordu / *Horas*	3.732,60 Ordu / *Horas* *
4	Fitnessa eta gimnasioak *Fitness y gimnasios*	1.935,75 Ordu / *Horas*	4.783,20 Ordu / *Horas* *

(*) COVID Sistema (zerbitzuak elkarlotuta). *(*) Sistema COVID (vincula los tres servicios).*

4. KONTRATUAREN PLAN OROKORRA

Pleguotan aurreikusi den kontratua elkar erlazionatzen diren hiru arlo ezberdinetan bereizi da, betiere herritarrei zerbitzu optimoak eskaini asmoz: Zerbitzuekin zuzenki lotzen den arloa, ZERBITZUEN KUDEAKETA; pertsonalari zuzenki lotzen zaiona, PERTSONEN KUDEAKETA eta Kirol Departamentuko lanen eta bertako giza baliabideekin interlokuzioa eta elkarlana garatzen duen arloa, BARNE KUDEAKETA.

4.1 ZERBITZUEN KUDEAKETA

Herritarrari eskaintzen zaizkion zentroari lotutako zerbitzu guztien kudeaketa biltzen du zerbitzuen kudeaketak.

4.1.1 Zerbitzua (1):
Harrera, zainketa, sarrera kontrola eta lan administratiboak.

Zarauzko Udal Kirol Departamentuak zehaztutako urteko egutegi eta ordutegi ofizialeko egun eta orduekin finkatuko da harrera, zainketa, sarrera kontrola eta lan administratiboen zerbitzua. 2. eta 5. Eranskinean zehazten dira gaur eguneko instalazioaren irekiera ordutegiak, zeina, eskatzen diren beharren arabera egokitua izan daitekeen.

Zerbitzuen prestazioaren baitan enpresa esleipenduna behar beste aldiz ondorengo hauek ekitera konprometitzen da: Erabiltzaileei arreta egitea, sarrera kontrola eta instalazioaren erabilera egokia ziurtatzea, salmenta (sarrerak, abonuak, kirol material txikia), instalazioen egoera gainbegiratzea, besteak beste argiak piztu/ itzaliz. Baita, eskaintzen diren zerbitzuen kudeaketa eta tramitazioarekin erlazionatutako lan administratiboak ere.

Enpresa esleipenduna izango da egunero intzidentziak erregistratuko dituena eta honen berri emango duena aukeran diren kanalen batetik. Enpresa esleipenduna hornitu eta mantenduko duen euskarri elektronikoan modu telematikoan sortuko dira eguneko intzidentzia parteak, uneoro ikusgai eta deskargatzeko aukeran kirol departamentuko pertsonalak erabili nahi izanez gero. Modu telematikoan beteko den eguneko parte honek udal kirol instalazio eta zerbitzuekin erlazionaturiko mota guztitako intzidentziak jasoko ditu.

4. PLAN GENERAL DEL CONTRATO

El contrato previsto en estos pliegos se ha dividido en tres áreas interrelacionadas, con el fin de ofrecer los servicios óptimos a la ciudadanía: El área directamente relacionada con los servicios, GESTIÓN DE SERVICIOS; la relacionada con el personal, GESTIÓN DE PERSONAS y el área relacionada con la interlocución y colaboración en el desarrollo de los trabajos con el Departamento de Deportes y su personal propio GESTIÓN INTERNA.

4.1 GESTIÓN DE SERVICIOS

La gestión de servicios engloba todos aquellos servicios que se ofrecen a la ciudadanía vinculados al centro.

4.1.1 Servicio (1):
Recepción, vigilancia, control de accesos y labores administrativas.

El servicio de recepción, vigilancia, control de accesos y labores administrativas se establecerá los días y horas que se determinen en el calendario y horario oficial anual del polideportivo municipal Aritzbatalde, emitido por el Departamento de Deportes del Ayuntamiento de Zarautz. Los horarios actuales de apertura de las instalaciones se detallan en los Anexos 2 y 5 pudiendo ser modificados según las necesidades requeridas.

En la prestación de este servicio, la empresa adjudicataria se compromete a lo siguiente: realizar, con la periodicidad necesaria requerida, las tareas de atención a las personas usuarias, control de acceso y utilización de las instalaciones, venta (de entradas, abonos, pequeño material deportivo), la supervisión del estado de las instalaciones, encendido/apagado de luces, entre otros. La empresa adjudicataria realizará también las labores administrativas relacionadas con la gestión y tramitación de los servicios prestados.

La empresa adjudicataria será responsable de registrar diariamente las incidencias que se adviertan y se le informen por cualquier canal. Se elaborará telemáticamente un parte de incidencias diarias de soporte electrónico suministrado y mantenido por la empresa adjudicataria, estando en cualquier momento a disposición de la visualización y, en su caso, de descarga para su utilización por parte del personal del departamento. Este parte diario a cumplimentar telemáticamente incluirá, todo tipo de incidencias relacionadas con el servicio y con las instalaciones deportivas municipales.

Jendaurreko irekiera ordutegi ofiziala edo jarduera hasera baino 15 minutu lehenago bertan izan beharko du gutxienez harrera zainak, sistema informatikoak, argiak eta ateak ireki, megafonia piztu, etab. Era berean, harrera zainak behar adina denbora egon beharko du itxiera ordutegia edo jardueraren amaitzen denetik bermatu ahal izateko; egoki itzali dela, instalazioko aparailuen deskonexioa egin dela eta era berean, instalazioen berrikuspen okularra egiteko. Inoiz ez du instalazioa utziko bere baitan pertsona erabiltzailerik balego (departamentuak emandako berariazko baimenen kasuan izan ezik). Enpresa esleipendunak pertsonalaren puntualtasuna ziurtatu beharko du.		La presencia física del personal de recepción deberá ser, por lo menos, de una persona 15 minutos antes del horario oficial de apertura al público o inicio de la actividad al efecto de encendido y puesta en marcha de los sistemas informáticos, luces y apertura de puertas, encendido de megafonía, etc. Asimismo, el tiempo necesario después del horario de cierre de la instalación o fin de la actividad para garantizar; el correcto apagado, desconexión de equipos e instalaciones, así como una revisión ocular de las instalaciones. Nunca abandonará la instalación si hubiese personas usuarias dentro (salvo permisos especiales concedidos por el departamento). La empresa adjudicataria deberá garantizar la puntualidad del personal.
2 eta 5. Eranskinean biltzen dira gaur eguneko instalazioaren irekiera ordutegiak, beharren arabera egokitua izan daitezkeenak.		Los horarios de apertura de las instalaciones en la actualidad se detallan en los Anexos 2 y 5 pudiendo ser modificados según las necesidades requeridas.
Kirol Departamentuari atxikiturik diren instalazioetan eta plegu hauetan adierazten diren eginkizunetan Kirol Departamentuak ez ohiko zerbitzu puntualak eskatu ahal izango dizkio enpresa esleipendunari, zeina berariazko eskaera bidez egingo den eta eskaintzan adierazi diren unitate prezioen arabera ordainduko diren. Izan daiteke, plegu hauetan zehazten den prestazioen osagarri den zerbitzu bat edo plegu hauetan jasotzen ez diren lanak egiteko, edo izaera puntuala eta aurre ikusi gabekoak; ekitaldiak kasu edo beste egoera bereziren bat (luzatzen diren partidak, torneo edo txapelketen antolaketak eskatzen dituen ustekabeko irekierak, segurtasun zerbitzuen presentzia iritsi artekoa, matxurak etab).		Cuando, puntualmente, hayan de ser prestados determinados servicios necesarios para complementar las prestaciones definidas en el presente pliego, o cuando se precise la realización de trabajos no recogidos en el pliego y que tengan un carácter puntual o no previsto, tales como; servicios consecuencia de acontecimientos, o cualquier otra situación especial (partidos que se alargan, necesidades de apertura imprevistas por organización de torneos, campeonatos, partidos aplazados, espera a la presencia de servicios de seguridad, averías, etcétera) en instalaciones adscritas al Departamento de Deportes, y que precisen la realización de las tareas señaladas en este pliego, el Departamento de Deportes podrá solicitar a la empresa adjudicataria la prestación de determinados servicios extraordinarios, que deberán ser objeto de expreso encargo y serán abonados conforme a los precios unitarios establecidos en la oferta.
7.Eranskinean jasotzen dira zerbitzu honi atxikitzen zaizkion pertsonalaren funtzioak eta eginkizunak.		Se recogen en el Anexo 7 las funciones y tareas del personal vinculado a este servicio.
4.1.2 Zerbitzua (2): **Salbamendua eta sorospena.**		**4.1.2 Servicio (2):** **Salvamento y Socorrismo.**
Instalazioetan salbamendua eta sorospen eginkizunak aurrera eramateko egin beharreko ekintza beharrezko guztien planifikazioa eta exekuzioa biltzen du zerbitzu honek, baita zerbitzuarekin lotutako beste edozein aspektu.		Este servicio comprende la planificación y ejecución de todas las actividades necesarias para llevar a cabo las tareas de salvamento y socorrismo en las instalaciones, así como cualquier otro elemento relacionado con el servicio.
Zentroa jendaurrera zabalik dagoen ordutegian eskainiko da zerbitzua, erabiltzailea nor denak baldintzatu gabe (pertsona abonatuak, ikastarogileak, klubak, ikastetxeak…) edo instalazio hauetan egiten den jarduera motak baldintzatu gabe (aisialdia, lehiaketak, entrenamenduak, ekitaldiak….)		El servicio se prestará en los horarios en los que el centro se encuentre abierto al público, con independencia de quién sea la persona usuaria concreta (personas abonadas, cursillistas, clubes, colegios...) o la actividad que se desarrolle en dichas instalaciones (ocio, competiciones, entrenamientos, acontecimientos…).

1.go zerbitzuan bezala, salbamendu eta sorospeneko pertsonalak ere jendaurreko irekiera ordutegi ofiziala edo jardueraren hasera baino gutxienez 15 minutu lehenago egon beharko du lanpostuan, instalazioen egoera zuzena ikuskatzeko etab. Eta itxiera ordutegia edo jarduera amaitu eta behar adina denbora berrikuspen okularra egiteko instalazioei. Inoiz ez du instalazioa utziko bere baitan pertsona erabiltzailerik balego (departamentuak emandako berariazko baimenen kasuan izan ezik). Enpresa esleipendunak pertsonalaren puntualtasuna ziurtatu beharko du.		Al igual que en el servicio 1, la presencia física del personal de salvamento y socorrismo deberá ser, por lo menos, de una persona 15 minutos antes del horario oficial de apertura al público o inicio de la actividad al efecto de revisar el correcto estado de las instalaciones, etc. y el tiempo necesario después del horario de cierre o fin de la actividad para garantizar una revisión ocular de las instalaciones. Nunca abandonará la instalación si hubiese personas usuarias dentro (salvo permisos especiales concedidos por el departamento). La empresa adjudicataria deberá garantizar la puntualidad del personal.
2 eta 5. Eranskinean biltzen dira gaur eguneko instalazioaren irekiera ordutegiak, beharren arabera egokitua izan daitezkeenak.		Los horarios de apertura de las instalaciones en la actualidad se detallan en los Anexos 2 y 5 pudiendo ser modificados según las necesidades requeridas.
Enpresa esleipendunak zerbitzua eskaintzeko behar adina pertsona izan beharko ditu. Aritzbatalde kiroldegiko igerileku estalia zabalik den aldiro, zerbitzura gutxienez sorosle bat atxikiko zaio.		La empresa adjudicataria deberá contar con personal suficiente para atender este servicio. El número mínimo de socorristas adscritos al servicio será de una persona socorrista en las piscinas cubiertas del Polideportivo municipal Aritzbatalde durante su horario de apertura.
Kontratuaren iraupen guztian zehar, gai honi dagokion eta indarrean diren legediek xedatzen dituzten gutxieneko baldintzak bete behar ditu enpresa esleipendunak, sorosle zerbitzua emateko. Araudi hauek, pleguak idazteko garaian, igerilekuetako irizpide tekniko-sanitarioak zehazten dituen irailaren 27ko 742/2013 Errege Dekretua eta erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioa onartzen duen otsailaren 18ko 32/2003ko Dekretua dira.		La empresa adjudicataria está obligada a la prestación del servicio de socorrismo cumpliendo los requisitos mínimos establecidos en la normativa de aplicación que se encuentre vigente a lo largo de la duración del contrato en esta materia. Dicha normativa, en el momento de redacción de este pliego es el Real Decreto 742/2013, de 27 de septiembre, por el que se establecen los criterios técnico-sanitarios de las piscinas y en el Real Decreto 32/2003, de 18 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento sanitario de piscinas de uso colectivo.
Aritzbatalde zentroan diren botikinak uneoro behar bezala egoki daudela ziurtatuko du enpresa esleipendunak, hau da, araudiak eskatzen duen gutxieneko materiala duela iraungi gabe, baita zerbitzu honekin erlazionatutako lehen sorospenerako aparatu eta ekipoen egoera uneoro ona dela. Enpresa esleipendunaren ardura izango guzti hauek hornitzea.		La empresa adjudicataria asegurará que, en todo momento, los botiquines existentes en el centro Aritzbatalde se encuentren adecuadamente, es decir, dispongan como mínimo del material exigido en la legislación y no se encuentren caducados, así como del correcto estado de los aparatos y equipos de primeros auxilios relacionados con este servicio. Las reposiciones serán con cargo a la empresa adjudicataria.
8.Eranskinean jasotzen dira zerbitzu honi atxikitzen zaizkion pertsonalaren funtzioak eta eginkizunak.		Se recogen en el Anexo 8 las funciones y tareas del personal vinculado a este servicio.
4.1.3 Zerbitzua (3): **Taldekako eta bakarkako jarduera gidatuak.**		**4.1.3 Servicio (3):** **Actividades dirigidas grupales e individuales.**
Herriko biztanleria guztiarentzat zuzendutako kirol jarduera gidatuen eskaintza betetzea du helburu zerbitzu honek, bakarkako ezaugarrietara egokitzen dena eta erabiltzaile diren pertsonen tipologia ezberdinak errespetatzen dituena.		El servicio de prestación del programa de actividades deportivas tiene como objeto cubrir la oferta de actividades deportivas dirigidas a toda la población del municipio, adaptadas a las características individuales y respetando las diversas tipologías de las personas usuarias.

Kirol Departamentuak aldiro zehaztuko duen jardueren programa ematea dagokio enpresa esleipendunari zerbitzu honetan, aholkularitza emanez, proposamen berriak eginez eta eskaera merkatuari egokituz uneoro. Adibide gisa erantsi dira 2019/2020 eta 2020/2021 IKASTURTEAK (3.eranskina) eta 2019, 2020 UDAk (4.eranskina) programazioak. Zeina egokitu ahal izango den eskaeraren arabera eta Kirol Departamentuak hala onartuko balu.		Este servicio comprenderá la impartición del programa de actividades a establecer periódicamente por el Departamento de Deportes, bajo el asesoramiento constante de la empresa adjudicataria en cuanto a nuevas propuestas y adecuación a la demanda. Se adjunta a modo de ejemplo las programaciones de CURSO 2019/2020 y CURSO 2020 / 2021 (Anexo 3) y programaciones de actividades VERANO 2019 y 2020 (Anexo 4). Dicha programación podrá modificarse en función de la demanda y será siempre aprobada por el Departamento de Deportes.
Instalazioak jartzen dituen baliabide tekniko eta materialak erabiliz emango du zerbitzua enpresa esleipendunak, musika duten jardueretan erabiliko diren hari gabeko mikrofonoak izan ezik. Musika aparatua eta ikastaro bakoitzeko berariazko ekipamenduaren erabilera ona egiteaz arduratuko da enpresa esleipenduna. Erabilera okerra egingo balitz, enpresa esleipendunaren kontu doa berritzea.		La empresa adjudicataria del servicio impartirá las actividades dirigidas utilizando los medios técnicos y materiales que la instalación pondrá a su disposición, salvo los micrófonos inalámbricos a utilizar en las actividades con música. La empresa adjudicataria se encargará del buen uso del equipo de música y del equipamiento específico de cada curso, tal como material didáctico u otros. Si no se hiciera buen uso de éste, la reposición correría por cuenta de la adjudicataria.
Egutegian programaturiko eta ikastaroa hasten denetik hamar minutuko epean gutxienez pertsona bat etorriz gero, saioa ematera behartuta dago enpresa esleipenduna.		La empresa adjudicataria se obliga a la impartición de las sesiones siempre que éstas se hallen programadas en el calendario y que se presente al menos una persona usuaria dentro del plazo de diez minutos desde la hora inicial de comienzo del curso.
Jarduera bakoitza emateko beharrezko kualifikazioa duen pertsonala izatera behartuta dago enpresa esleipenduna.		La empresa adjudicataria estará obligada a disponer del personal con la cualificación necesaria para la impartición de cada actividad.
Zerbitzuari arreta egiteko pertsonal nahikoa izan beharko du enpresa esleipendunak. Horretarako derrigortzen zaio enpresa esleipendunari pertsonal monitorea berehala ordezkatzeko sistema martxan izatea, kontratatua izan den zerbitzurik gabe geratu ez daitezen ikastaroetako pertsona erabiltzaileak.		La empresa adjudicataria deberá contar con personal suficiente para atender este servicio. Para ello, la empresa adjudicataria se obliga a la puesta en marcha de un sistema de sustitución del personal monitor de carácter inmediato, a fin de que las personas usuarias cursillistas no se queden sin recibir el servicio contratado.
Pertsonal monitore berria kontratatuz gero, ordezkatua izan den monitorearen eskakizun berdinak bete beharko ditu eta Kirol Departamentuari jakinarazita eta aurkeztua egon beharko du instalazioan lanean hasi baino lehen.		Si la empresa contratara a nuevo personal monitor, deberá cumplir los mismos requisitos que aquel o aquella a quien sustituyó y habrá de ser anunciado y presentado el cambio en el Departamento de Deportes antes de su ejercicio profesional en la instalación.
Saioen kalitatea bermatzeko, Kirol Departamentuak talde bakoitzeko gehienezko eta gutxieneko izen emateak zehaztuta ditu eta era berean, gutxieneko kopuru horretara iristen ez den taldea/ordutegia, bertan behera uzteko eskubidea du. Era bereran, Kirol Departamentuak, taldeko gutxienekoa eta gehienekoa aldatu ahal izango du jarduera bat sustatzeko garaian, talde bakoitzaren errentagarritasun ekonomikoa helburu, instalazioaren erabilgarritasunaren arabera etab.		Para garantizar la calidad de las sesiones, el Departamento de Deportes tiene establecido el número máximo y mínimo de inscripciones por grupo para que los cursos puedan ser realizados, reservándose el derecho de anular algún grupo/horario que no alcance esos mínimos. Podrá también el Departamento de Deportes modificar los mínimos y máximos de los grupos atendiendo a criterios de interés por promocionar una actividad, a la rentabilidad económica de cada grupo, disponibilidad de instalaciones, etc.

Lizentzia bereziak behar dituzten jardueren lizentziak, baimenak edo besteak, enpresa esleipendunak ordainduko ditu.		La empresa adjudicataria será la encargada de pagar las licencias, permisos u otros que fueran necesarios por las actividades que requieran licencias especiales.
9.Eranskinean jasotzen dira zerbitzu honi atxikitzen zaizkion pertsonalaren funtzioak eta eginkizunak.		Se recogen en el Anexo 9 las funciones y tareas del personal vinculado a este servicio.
4.1.4 Zerbitzua (4): **Fitnessa eta gimnasioak.**		**4.1.4 Servicio (4):** **Fitness y gimnasios.**
Fitness zerbitzuak pertsona erabiltzaileak direnentzat zerbitzu librea eskaini nahi du orokorrean, zeinak preskripzioa, monitorizazioa eta jarraipena egitea eskatzen duen.		El servicio fitness pretende ofertar un servicio de libre utilización hacia las personas usuarias en general, que requiere de una prescripción, monitorización y seguimiento.
